



KONTZERTUA

Saio magikoa

GABONETAKO ORATORIOA

JEAN-SÉBASTIEN BACH

Le Concert Lorrain

ZUZENDARIA: ANDREW PARROTT

ABESBATZA: DRESDNER KAMMERCHOR

ZUZENDARIA: ROBERT SCHAD

BAKARLARIAK: JOANNE LUNN, MARTHA MCLORINAN, JAMES GILCHRIST ETA PETER HARVEY

Kursaal Auditorioa | Abenduaren 16a

TESTUA | MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Joan zaizkigu Gabonak, baina oraindik buruan ditugu turroiak eta familia eta lagunekin pasatako une dibertigarriak. Egun hauetan disfrutatutako kontzertu batzuen oroimenak ere bueltaka ditugu gure pentsamenduetan. Horietako bat, zalantzarik gabe, Kursaal Eszena zikloan eskainitako *Gabonetako Oratorioa*.

Obra ederra da, tarte guztietan begi bistan dago Bachen konposatzeko maisutasuna. Sei kantatak osatzen dute *Oratorioa*, haietako bakoitza Eguberritako jai liturgiko banatarako. Aldi honetan lau entzun genituen: lehen hiruek Gabonetako lehen hiru egunekin bat egiten dute, eta seigarrenak Epifaniaren gaia jorratzen du.

Esan bezala, obra zirrarragarria eta aldi berean samurra da. Harelere, *Oratorio* hau ez zen bereziki aintzat hartua izan orain dela gutxi arte, beharbada ulertu ez zelako Bachen prozedura, *parodia* izenekoa. Honek esan nahi du aurretiaz idatzitako obretako gaiak erabiliz *josi* egin zuela Bachek oratorioa. Nahiz eta *mix* izaera hori eduki obra honek, ezin da ukatu haren edertasuna.



LE CONCERT LORRAIN - © BENJAMIN DE DIESBACH

Kursaal Eszenak ekarritako bertsioa mundiala izan zen. Talde bikain pare bat izan genituen taula gainean. Alde batetik garaiko instrumentuak erabiltzen dituen Le Concert Lorrain taldea, eta bestetik, Desdner Kammerchor abesbatza. Biak, akatsgabeak. Andrew Parrott zuzendariak jakin izan zuen taldearen soinu berezi hori biribiltzen eta normala den aintzinako soinu-tresnen garraztasuna leuntzen, maisuki. Abesbatza, Robert Schad-en zuzendaritzapean, oso homogeneoa azaldu zen soka guztietan eta ederki aritu zen uneoro.

Lau bakarlariak oso konbentzigarriak izan ziren. James Gilchrist tenoreak primeran egin zuen Ebanjelistaren papera, oso adierazkorra errezitatibo guztietan. Ahots argitsu eta boteretsua luzitu zuen. Peter Harvey baxuak emisio fin eta doia azaldu zuen, batez ere duetan. Martha McLorinan kontralto agian ilundua geratu zen, batez ere Joanne Lunn sopranoaren ondoan, hain zirrarragarri eta bizia izan zen honen kantua, benetan bikaina.

Kontzertu fresko eta perfektua suertatu zen, eta publikoak txalokada beroekin erantzun zuen. ●

Zorionak ARGIA

100 URTE HAUETAN EUSKARAREN
ALDE EGINDAKO LANARENGATIK

IBARRAKO UDALA

☎ 943 671 138 ✉ harrera@ibarra.eus



IBARRAKO UDALA